


AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA KATE HANDIETAKO MERKATARITZA INDIZEA. 2021EKO UZTAILA

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,1 jaitsi dira 2021eko uztailan

2021eko ekainarekin alderatuta, ordea, salmentak % 0,9 igo dira

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko uztailan % 0,1eko urte arteko jaitsiera txikia izan dute Euskal AEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek, prezio finkoetan. Aurreko hilabetearen aldean, ordea, salmentak % 0,9 gehitu dira. Kopuru horiekin, lehenengo zazpi hilabeteetan metatutako igoera % 2,0koa izan da.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

2020ko uztailaren aldean, elikagaien salmentak azalera handietan eta elikadura-kate handietan % 1,2 igo dira aurtengo uztailan; gainerako produktuetan, berriz, % 2,3 jaitsi dira.

Lurraldeka, urte arteko terminoetan, salmentak % 1,5 igo dira Bizkaian; gainerako lurraldeetan, berriz, jaitsi egin dira, % 2,1 Gipuzkoan eta % 1,4 Araban.

Aurreko hilabetearen aldean, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 2,2 igo dira 2021eko uztailan elikagaietan, eta gainerako produktuetan % 1,7 jaitsi dira.

Lurraldeka, Gipuzkoan hil arteko portaera positiboa izan da (% 2,5), Bizkaian bezala (% 0,2); Araban, berriz, % 0,3ko atzerakada izan da.

2021eko urtariletik uztailera bitarteko aldi metatuan, merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmenta-indizeak balio positiboetan jarraitzen du, eta % 2,0ko hazkundera izan du aurreko urteko aldi metatu beraren aldean. Joera hori gainerako produktuen salmenten bilakaeraren ondorio da oraindik ere, 2020an metatutako aldi berean baino % 15,0 gehiago; izan ere, elikaduraren kasuan, uztailera arte metatutako salmentak % 3,1 jaitsi dira.

Lurraldeka, urte honetan zehar metatutako aldakuntza positiboa izan da Araban (% 4,0) eta Bizkaian (% 3,8); Gipuzkoan, aldiz, negatiboa izan da (% 1,9).

Azkenik, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako langile enplegatuak % 7,9 gehitu dira 2021eko uztaillean, aurreko urteko hil beraren aldean, eta % 1,3, berriz, 2021eko ekainaren aldean. 2021eko lehenengo zazpi hilabeteetako metatuan, igoera % 3,4koa da.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea.
Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Uztaila 2021 (p)

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-0,1	0,9	2,0
Araba/Álava	-1,4	-0,3	4,0
Bizkaia	1,5	0,2	3,8
Gipuzkoa	-2,1	2,5	-1,9
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	1,2	2,2	-3,1
Beste produktuak	-2,3	-1,7	15,0
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	7,9	1,3	3,4

(p) behin-behineko datuak

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

INFORMAZIO OHARRA

Urte arteko aldakuntzak kalkulatzeko, egutegi-eraginik gabeko serie zuzenduak erabiltzen dira, eta hil arteko aldakuntzak kalkulatzeko, urtaro-eraginik gabeko serieak.

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuaren artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloei COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak ematen dizkie Azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritza-indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, uztaileko

indizea laginaren % **90,0ko estaldurarekin** kalkulatu da –horren informazioa abuztuan jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62